



**EUROPAREN ETORKIZUNAREN INGURUKO IKUSPEGIA
DOKUMENTUAREN AURKEZPENA / PRESENTACIÓN DEL DOCUMENTO:
VISIÓN DEL FUTURO DE EUROPA**

2018-03-09 Vitoria-Gasteiz 09-03-2018

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Egunon eta eskerrik asko gurekin izateagatik.

Europar Batasunaren etorkizunari buruz dugun ikuspegia jasotzen duen dokumentua onartu dugu. Eusko Jaurlaritza herritarren borondatearekin bat etorriko den Europar Batasun federal, eratzaile eta demokratiko baten alde dago.

Maila askotako gobernantzaren printzipioan eta Lisboako Itunaz geroztik dimensio deszentralizatu bat jasotzen duen subsidiarotasun-printzipioan oinarritutako Europa defendatzen dugu.

Europa estatu kideen barruan dauden herri, eskualde eta nazio konstituzionalentzat eraikitzeko prozesuan zeregin aktiboa berreskuratzeko garaia iritsi dela uste dugu.

Horregatik, ekarpen honetan legegintza-eskumenak dituzten Europako eskualde konstituzionalen eta Estaturik gabeko errealitate nazionalak diren eskualdeen arteko harremanak indartzea proposatzen dugu.

Elkarlan horrek herritarrengandik hurbilago egongo den Europar Batasun efizienteago eta koherenteago bat eraikitzen lagun dezake. Maila askotako gobernantzari buruzko Konbentzio bat eratzea proposatzen dugu.

Konbentzio horretan, Europako Konbentzioaren subsidiarotasunari buruzko lan-taldean egindako lanei (bereziki, Elkartutako Eskualdearen figurari buruzko *Lamassoure Txostenari*) ekingo zaie berriz.

Europar Batasuneko araudian “Argitasunari buruzko Zuzentarau” bat txertatzeko eskatzen dugu. Honen bidez, beren autogobernu-erakunde parlamentarioen erabaki argi bidez beren etorkizuneko estatus politikoari buruz erabakitzeko borondatea adierazi duten komunitate politikoentzako bidea izan daitekeelakoan.

El Gobierno Vasco ha aprobado el documento que contribuye a la reflexión abierta por Jean Claude Juncker en marzo de 2017 con el Libro Blanco sobre el futuro de Europa.

Defendemos una Unión Europea de corte federal y constituyente, democrática y acorde con la voluntad de las y los ciudadanos. Una Europa política basada en los principios de gobernanza multinivel y el principio de subsidiariedad que contempla, desde el Tratado de Lisboa, una dimensión descentralizada.

Creemos llegado el momento de recuperar un papel activo en la construcción europea para los pueblos, regiones y naciones constitucionales existentes en el interior de los Estados.

Planteamos una Unión Europea más eficiente, coherente, cercana y abierta a la participación; incorporando el papel de las Regiones Constitucionales que cuentan con competencias legislativas y aquellas que representan a realidades nacionales sin Estado.

Planteamos un nuevo modelo de gobernanza multinivel efectiva, con mayor corresponsabilidad de las Regiones Constitucionales en el proceso de integración futura de la Unión. Una Europa de ciudadanas y ciudadanos libres e iguales, lugar de encuentro de sus pueblos; próspera, basada en una economía social de mercado y con un firme compromiso social. Una Europa que sitúe a la persona como eje central de su acción.

Europa soziala eskatzen dugu, Göteborgeko goi-bileran bultzatutako Oinarri Sozialaren ildotik.

Austeritatearen paradigma gainditzeko aukera emango duten eta ongizate-sistemen bideragarritasunean lagunduko duten gizarte-dimentsioko politikak planteatzen ditugu.

Bide horretatik hainbat erronkari erantzungo zaie, hala nola gazteak, emakumeak eta iraupen luzeko langabeak laneratzeko erronkari. Familiei laguntzeko eta lana eta familia uztartzeko politiken bidez erronka demografikoari eta biztanleriaren zahartzeari aurre egiteko erantzunak proposatzen ditugu.

Reclamamos la **Europa social** definida en la cumbre de Gotemburgo.

Proponemos respuestas al reto demográfico y el envejecimiento de la población, mediante políticas de apoyo a las familias y la conciliación.

Reclamamos la regulación comunitaria de unas condiciones de trabajo, salario mínimo y estándares sociales básicos, incluida una renta de garantía de ingresos, que aseguren una vida digna.

Abogamos por fomentar la economía social y modelos de trabajo asociado como el cooperativismo.

Apostamos por el fomento de la Educación Superior Dual en los ámbitos universitarios y de Formación Profesional para afrontar desafíos como el desempleo juvenil.

Una Europa de la cultura

Es preciso sentar las bases de una Europa más plural, alejada de las tendencias uniformadoras en el ámbito cultural y lingüístico.

Es necesario fomentar el conocimiento de la cultura de los pueblos que integran la Unión, así como el impulso y protección de las lenguas minoritarias y no hegemónicas existentes en Europa.

Benetako **industria-politika** bat planteatzen dugu hazkundera eta enplegua lortzeko ekarpen gisa.

Arreta berezia eskaini behar zaie enpresa txiki eta ertainen premiei.

Halaber, apustu irmoa egin nahi dugu puntako teknologiak babestuko dituen eta industria eta ingurumen erronkei aurre egiten lagunduko duen ikerketa eta berrikuntza bultzatzeko

Industria-lehiakortasunaren aldeko agenda bat planteatzen dugu. Industria-sarea modernizatzeko ekintzak bultzatzen ditugu, azpiegituretan eta teknologia berrietan egin beharreko inbertsioen bidez eta prestakuntza sistemak premia berrietara egokituz.

Merkatu digital, energia-merkatu eta finantza-merkatu bakarrak eratzea planteatzen dugu.

Moneta bakarra Europako integrazio politikorako tresnatzat hartzen dugu. Bide honetan, Euroa osatu eta, aldi berean, zerga-paradisuen eta zerga-iruzurraren aurkako konpromisoa sendotu behar da.

Europa competitiva

Planteamos una auténtica Política industrial como aportación al crecimiento y el empleo, que preste particular atención a las necesidades de las PYME.

También una clara apuesta por la investigación e innovación que apoye a las tecnologías punteras y que contribuya a resolver los retos industriales, medioambientales y sociales.

Planteamos la constitución de los mercados únicos digital, energético y financiero.

Reivindicamos una política europea de *clusters* que permita crear cadenas de valor transeuropeas y facilitar la colaboración intersectorial entre empresas de distintos territorios.

Europa sostenible

La Unión debe liderar la lucha contra el cambio climático y apostar por el cumplimiento estricto de los compromisos internacionales asumidos en la materia.

Es preciso impulsar un modelo socioeconómico bajo en emisiones de carbono. Apostamos por materializar las interconexiones energéticas y las interconexiones ferroviarias de alta velocidad.

Europa económico-monetaria

Consideramos la Moneda Única como herramienta de integración política. Es preciso completar el euro y reforzar el compromiso en la lucha contra los paraísos fiscales y el fraude fiscal.

Planteamos situar el Presupuesto de la Unión en el 2% del PIB de los veintisiete. Podría financiarse con un impuesto sobre las transacciones financieras y tasas medioambientales.

Un presupuesto con capacidad de inversión en proyectos estratégicos. Apoyamos la agenda comercial anunciada por la Comisión Europea para hacer frente al proteccionismo.

Europa abierta y solidaria

Planteamos redoblar el esfuerzo en Cooperación al Desarrollo, tanto por imperativo ético, como desde el convencimiento de que la lucha contra la pobreza y la desigualdad es factor de seguridad y estabilidad.

La UE debe garantizar los derechos fundamentales de las personas que huyen de la pobreza, las guerras, la persecución o las violaciones de los derechos humanos y llegan en busca de refugio.

Defendemos una Unión comprometida con el multilateralismo, respetuosa con los consensos internacionales en materia de derechos humanos, cambio climático, solidaridad o desarrollo humano sostenible.

Eusko Jaurlaritzak balio partekatu sendoetan oinarrিতa egongo den, munduko gainerako herriekin solidarioa izango den eta etorkizuneko belaunaldiekin konprometituta egongo den Europar Batasun bat planteatzen du.

Herritar libre eta berdinez osatuta egongo den eta bertako herrien topaleku izango den Europa oparo bat, merkatu-ekonomia sozial batean oinarrিতa eta konpromiso sozial irmoa izango duena.

Ekintzaren ardatz nagusi gisa pertsona izango duen Europa bat.

Bukatzeko, uste dut atzoko egunak aipamen berezi bat merezi duela. Egun historikoa izan zen, bai antolaketaren ikuspuntutik, baita ere mundu osoan jason zuen erantzunagatik.

Martxoaren 8ak erakutsi du berdintasunaren aldeko mezua babes osoa eta orokorra duela gure gizartean. Ekarpen eta iritzi guztiak positiboak izan dira, eraikitzaileak.

Mobilizazioa era guztietakoa izan da eta mota guztietako pertsonak hartu dute parte. Emakume gazteen parte hartzea nabarituko nuke. Hau oso garrantzitsua iruditzen zait berdintasunaren kultura sustatzen eta indartzen jarraitzeko.

El 8 de marzo ha sido una jornada histórica por la organización y la respuesta global obtenida.

Ha puesto de manifiesto un respaldo unánime a la demanda de fondo de avanzar en la igualdad, todas las voces han sido positivas y constructivas, no ha habido prácticamente posicionamientos críticos.

La movilización ha sido muy diversa, en su vertiente organizada y en la espontánea. Ha sido un éxito y cabe destacar el alto compromiso de las mujeres más jóvenes, una garantía para seguir avanzando en la igualdad.

Eskerrik asko!